globalexpress

▶ DOSSIERA
▶ GIDA DIDAKTIKOA
▶ JARDUERAK

2012ko Urtarrila | 18 zk.

Plazetako matxinada

Foto: SunriseOn7

Foto: Otromundoespossible

Foto: Omar Robert Hamilton

Foto: iStockphoto

Foto: Tomalosbarrios

Foto: O. González

Jarduerak

1. Begiratu argazkiak: zergatik bildu dira irudi bakoitzeko pertsonak, zure iritziz?
2. Bildu itzazu multzoka ezaugarri komunik daukaten irudiak eta azaldu zergatik egin duzun horrela.
3. Zerk bultzatzen du gizakia mobilizatzera, beste batzuekin elkartzera edo elkarrekin antolatzera?

Haserretu zaitez!

Jarduerak

4. Zerrendatu haserretzen zaituzten gauza, gertakari, egoera eta pertsonak; idatzi horiek lehen zutabean*.

   Konparatu zure zerrenda eta ikaskideenak; lehenik talde txikitan eta ondoren gela-taldean. Idatzi hurrengo gelaxkan eta sartu, era berean, oharpenen atalean deigarri gertatu zaizun guztia:

Neu	Gure taldea	Gure gela

Oharrak: .....

.....

.....

.....

.....

.....

*Termino honek adierazten duena, guregan haserrea, amorrua edo, areago, sumina sortarazten duen guztia da.

Jarduerak

5. Albistea irakurri aurretik, gelan galdera hauek iruzkindu ditzakezue:
   - Ba al da pobreziarik zure auzoan, herrian, herrialdean?
   - Espainian nor bizi da pobrezi egoeran?
   - Zer da, zure ustez, "pobrezia erlatiboa"?

Iturria: http://www.unicef.es/sala-prensa/casi-dos-millones-de-ninos-estan-en-riesgo-de-pobreza-relativa-en-espana

Espainian, ia bi milioi haur daude pobrezia erlatiboan sartzeko arriskuan

Espainian, lau haurretik bat pobrezia erlatiboan bizitzeko arriskuan dago, hots, estatuko batez besteko %60 baino diru-sarrera gutxiago duten etxean bizi da. Datu horren erruz, Espainia Europar Batasuneko herrialdeen atzeko muturrean agertzen da Errumania, Bulgaria, Letonia eta Italiaren aurretik.

Haur-pobrezia, batez ere, **seme-alaba ugaridun edo langabezian dagoen edo lan prekarioa duen guraso bakarreko** familietan biltzen da.

Haurra, lehentasuna politika sozialetan

Adin txikikoa izan eta pobrezian bizitzea ez da gosea nozitzearen pareko, baina elikadura eskas eta desegokia hartzea esan nahi du (horrek osasunean duen eragin kaltegarri eta guzti). Era berean, ez da hezkuntzarik ez izatearen pareko, baina eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak normaltasunez betetzeko behar diren baliabide material eta ekonomikorik ez izatea esan nahi du.

Haur-pobrezia murriztea baliabide kontua da, eta politika sozialen diseinu eta planifikazio kontua ere bai. 2008ko datuen arabera, haur eta familietan egiten den herri-gastuari dagokionez, Greziarekin batera, Espainia Europar Batasuneko azken tokian agertzen da, EBeko batez bestekoaren (%2,3) oso azpitik: BPGaren %0,7 baizik ez. Haur-pobrezia murriztu ahal izateko, haurrak lehentasunetako bat izan behar du politika sozialetan.

Jarduerak

6. Albistea irakurrita, erantzun galdera hauei:
   - Espainian hamar haurretik zenbat daude pobrezian amiltzeko arriskuan? Bilatu datu hori testuan.
   - Nolako arazoak izaten dituzte haur horiek, zure ustez? Alderatu zure erantzunak eta testuko esakuneak.

Zergatik irten ginen kalera?

Jarduerak

7. Zergatik amorratzen da jendea gure gizartean, zure ustez? Eta beste gizarte batzuetan? Partekatu zure erantzunak eta ikaskideenak.

8. Irakurri testigantza hauek:

Esteban, 31 urte, Bartzelonaren kanpoaldean bizi da.

"Etxegintzan nenbilen lanean, autonomo gisa, enpresa multinazionalekin sinaturiko kontratuetan. Hilean 3.000 euro irabazten nituen eta, oporrak egitekotan, abuztuan hartzen nuen aste pare bat, lana ugari zegoelako", dio Estebanek.

Hori, 2004an izan zen: orduan Estebanek 24 urte zituen, ezkongabea zen eta hilean ia-ia zeinahi profesional unibertsitariok baino gehiago irabazten zuen. Egoera halakoa izaki, hipoteka berehala onetsi zion bankuak.

2009 iritsita, ordea, Estebanekin kontratuak sinatuak zituzten enpresek ez zioten lanik ematen. Langile autonomoaren tasa (hilean, 250 euro) ordaintzeari utzi zion, bankuarekin konponketa egin behar izan zuen, zorraren interesak bakarrik ordaintzeko baimena eman ziezaion erakundeak, eta langabeziagatiko dirulaguntza jasotzen hasi zen; hortik, bankuari ordaindutakoan, 30 euro bakarrik geratzen zitzaizkion.

Lanik aurkitu ez, baina Gobernuak langabetuentzako finantzatzen dituen ikastaroekin ere ez du suerte handirik izan: "Osasun Teknikari Laguntzailearen ikastaroan hasi nintzen baina modulu bat eta praktikak egiteko aukerarik ez genuen izan. Orain, berriz, horiek ordaintzeko dirurik ez dagoela diote."

"Independente samarra izan naiz betidanik. Ia dena neronek kudeatzen dut. Janaren eskean hasiko nintzenik ez nuen behin ere pentsatu. Mila-mila esker, baina janaren premian egongo nintzenik... burutik ere ez zitzaidan pasatu", dio Estebanek.

Iturria: BBC MUNDO 4-07-2011: http://www.bbc.co.uk/mundo/noticias/2011/07/110704_espana_pobreza_sociedad_mes.shtml

Emakume sumindua

Orain urte dozena batzuk (ezta antzinaantzina ere) limosna eskatu behar izaten nuen neba sendagilearengana eraman ahal izateko. Osasungintza pribatuaren garai haietan, diru-sarrera handirik gabeko herritarrek aukera gutxi zituzten, besteren karitatearen mendeko edo herri-ongintzaren onuradun izateaz aparte. Egun, mikrofono aurrean eskarmentua kontatzen ari den emakumeak bere burua "zeharo amorratutzat" jotzen du eta harri eta zur begira dago gizartea atzeraka ari dela, erraldoien urratsak eginez, larrutik ordaindu ziren eskubide eta lorpen haiekin ahaztuta.

Iturria:http://sevilla.tomalaplaza.net/?s=%22hace+algunas+d%C3%A9cadas%22

Mario Sánchez Nevado

Mario, ilustratzaile digitala eta bideoen zuzendari eta editore, hasiera-hasieratik izan da ISM mugimenduko kide, Murtzian. Mugimenduan dena emateko, lana ere bertan behera utzi du.

"Democracia Real Ya mugimenduak, funtsez, ISM-eko manifestazioan plataforma bakarrean mugimendu asko bildu zituen... Handik hiru egunetara mintzagaia ez zen Espainiako kanpaldiak, Europako eta, areago, mundu zabaleko protestak baizik..."

"Democracia Real Ya, ISM edo dena delako –dena baita gauza bera– horren helburu nagusia bankaren diktadurari amaiera ematea da, horrexek eragiten baititu alderdi politikoen hariak. Bankuen eta gobernuen gardentasunik eza eta boterea kritikatzen ditugu (...) ISM mugimendua auzo-biltzarretan antolatuko da herritar guztiengana iritsi eta horien arazo, zailtasun eta proposamenak entzuteko (...). Horregatik komunikatu nahi dugu dena ahoz aho: edonork parte hartuko duela seguru jakiteko modurik eraginkorrena da hori... Zoragarria da biltzar bat egin eta, oraingoz ia partaide guztiak gazteak badira ere, pixkanaka, 60 edo 70 urtekoak ere hurbiltzen eta parte hartzen hasi direla ikustea." Horrela dakusa Mariok. Helburua: politikariei jokabidez aldaraztea eta egungo arazo global larriez kontzientzia harraraztea (...) Mugimenduaren etorkizunarekin itxaropentsu agertzen da Mario: "Azken konponketa ez daukagu oraino. Aldaketa baten hasieraz ari gara. Oraintxe hasi da kontu hau."

Iturria: http://lacocteleravisual.blogspot.com/2011/06/entrevista-mario-sanchez-nevado-artista.html

Etorkizunik gabeko gazteak

Maria eta Sergio, unibertsitate-ikasketan aritu ziren orain dela zortzi urte. "Inondik inora ez nuen imajinatuko, bi karrera eginik, langabezian egongo nintzela orain", dio Sergiok. Mariak, sistemarekin kritikoago, bestela ikusten du: "Okerrena, dauden eskaintza bakarrak bekak izatea, oso-oso gaizki ordaindua baina zeharo onuragarriak enpresentzat."

"Enpresarioek nahi dutena bekadunak kontratatzea da, Gizarte Segurantzan kotizaziorik ez ordaintzeko", gehitu du Sergiok. "Lotsagarria da lizentziatutako jendeak berriz ere matrikula egin behar, suerte handi tarteko, bekadun bihurtu ahal izateko."

Iturria: ABC, 2011ko apirilaren 7: http://www.abc.es/20110407/espana/abci-mani-201104071931.html

Arabiar udaberria

"Berdin dio nondik zatozen, gizaseme edo emakume gazte bazara, kausa berberak ekarri baikaitu denok: herrialdea berreskuratu nahi dugu."

Maher Zayn libanoar abeslariaren "Freedom" kantua Arabiar Udaberriaren gairik ezagunena bilakatu izana ez da txiripa. Letra ingelesez daukan abesti hori Interneteko gazteria berriaren ikur bat da: gazteak aspertu dira belaunaldi zaharretako gizakien utzikeria eta geldikeriarekin eta, orain, munduan sartzea bilatzen du buru-belarri.

Askatasuna (Freedom)

Hemen naiz, ene senide, auzokide eta lagunekin,
zut eta elkarturik, eskutik harturik,
zapalkuntzaren aurrean.
Berdin dio nondik zatozen,
gizaseme edo emakume gazte bazara,
kausa berberak ekarri baikaitu denok: herrialdea
berreskuratu nahi dugu.

Milesker Jainkoa, irauteko indarrak ematearren;
orain hemen gara denok elkarrekin
eta askatasuna eskatzen dizugu.
Badakigu gure deia adi dezakezula,
askatasuna eskatzen ari gara, askatasunaren
alde borrokan.

Badakigu ez gaituzula utziko, eror ez gaitezen,
badakigu hemen zarela gurekin,
bukatu da geure etxean gatibu izatea,
amaitu da hitz egitearen beldur izatea.
Xaloa da gure ametsa: aske izatea, hori baizik ez,
erabat bizitza askerako
lehen urratsa egin dugun honetan
gure ametsa gerturatzen ari zaigu...
ia lortu dugu!

Milesker Jainkoa,
irauteko indarrak ematearren;
orain hemen gara denok elkarrekin
(....)

Badakigu ez gaituzula utziko, eror ez gaitezen,
badakigu hemen zarela gurekin,

Airean harrotasuna aditzen dut,
horrek indartzen nau;
den-denak elkarturik, bat eginik, eskutik harturik,
ozen oihukatuz, aske izateko eskubidea errekla-
matuz.
Horixe dago, ez dugu atzera egingo.
Badakigu, Jainkoa, gure deia entzun dezakezula.

Askatasuna, askatasuna eskatzen ari gatzaizkizu
Badakigu gure deia entzun dezakezula.
Askatasuna, askatasuna eskatzen ari gatzaizkizu,
Badakigu ez gaituzula utziko erortzen,
badakigu hemen zarela gurekin.

Maher Zain

Jarduerak

Testigantza horiek irakurrita, hurrengo prentsa-titularrekin lotuko ditugu:

2011ko lehen hiruhilekoan ere etekinak bildu ditu Espainiako bankak

Espainiako bankak, denera, 3.741 milioi euro irabazi ditu 2011 honetako lehen hiruhilekoan, hots, iazko (2010) epe berean baino %4,5 gutxiago, **Asociación Española de Banca** (AEB) erakundeak argitara emaniko datuek adierazi bezala.

Iturria: http://www.sondeoeconomico.com/2011/06/21/la-banca-espanola-sigue-recogiendo-beneficios-en-el-primer-trimestre-de-2011/

EFE. 07.04.2010

Hipoteka ez ordaintzeagatiko etxebizitzen enkante-kopuruak marka hautsi zuen 2009an

- Joan den urtean Espainiako auzitegiek hipotekak exekutatzeko ia 100.000 eskaera jaso zituzten bankuen aldetik.
- Ekitaldi horretarako 76.000 eskaera "bakarrik" aurreikusiak zituen.
- 2008 urtearekin alderatuta, %59 handiagoa da kopurua.

Iturria: http://www.20minutos.es/noticia/671246/0/demandas/subastar/viviendas/

Iturria: http://www.centredelas.org/index.php?option=com_content&view=article&id=688:la-verdad-del-gasto-militar-del-ano-2011-&catid=42:economia-de-defensa&Itemid=63&lang=esdel-gasto-militar-del-ano-2011-&catid=42:economia-de-defensa&Itemid=63&lang=es

2011 URTEKO GASTU MILITARRAREN EGIA

Espainiako Defentsa Ministerioaren 2011 urterako hasierako aurrekontua **8.560,09 milioi euro da**, hots, Gobernuaren esanetara, 2010 urtekoa baino %7 txikiagoa da. Guk eginiko azterketaren arabera, ordea, aurrekontu hori askoz ere handiagoa da, gastu militarretarako partida asko beste ministerioetan barreiaturik daudelako.(...)

Estatu espainiarra bortizki astintzen duen krisi ekonomikoa gorabehera, 2011 urterako gastu militarra gastu publikoetan lehentasunetako bat da oraino Gobernu espainiarrarentzat. Baiespen hori ez da funsgabea, gainerako ministerioek nozitu duten murrizketa —%15eko beherapena, batez beste; areago, ordea, ongizatearen estatuaren euskarri direnak, hala nola Hezkuntza (%8,1 gutxiago), Osasungintza (%8,2), Gizarte Zerbitzuak (%8,1, eta pentsioen izoztea; Garapenerako Laguntza Ofiziala (%19,9 edo 852 milioi euro)— aintzat hartuta. Esan dezakegu, beraz, Defentsa Ministerioa pribilegiatua izan dela, izaera sozialeko partiden aldean.

Pere Ortegak idatzia
2011ko martxoaren 5, larunbata.14:23

elcorreo.com 15.02.11 - 02:42-

Mubarak sendiaren aberastasunen jatorria, ikergai

Egiptoko Fiskaltza Hosni Mubarak presidente ohiaren, emaztearen eta seme-alaben ondasunen jatorria ikertzen ari da. Joandako asteazkenean, Abdel Meguid Mahmud Fiskal Nagusiak, prentsan agertutako informazioetan oinarrituriko salaketa jaso zuen: iturri horien arabera, aurreko presidentearen familiaren ondarea 30.000 eta 50.000 milioi eurokoa dela kalkula daiteke.

Iturria: http://www.elcorreo.com/alava/v/20110215/mundo/origen-riqueza-mubarak-investigado-20110215.html

Camps-ek soldata herri-dirutik kobratuko du, eroskeriagatik kondenatua gertatzen bada ere

Aholku Kontseiluburuak Campsi postua 15 urterako bermatu dio

http://www.publico.es/espana/394371/camps-disfrutara-de-un-sueldo-publico-aunque-sea-condenado-por-soborno

SERGI TARÍN VALENCIA: 03/09/2011

21 septiembre, 2011 SetasRevueltas No comments

Esnatu, Dos Hermanas! Bertako gobernarien aurkako manifestazioa

Manifestazio horren bitartez, Dos Hermanas herriko (Sevilla, Espainia) 15M mugimenduak udal gobernu taldearen eta oraingo zinegotzi gehienen etikarik, elkartasunik eta duintasunik eza salatu nahi du, pertsona horiek soldata gupidagabe eta lotsarik gabe altxatu diotelako bere buruari; bestetik, Dos Hermanas herriak nozitzen duen krisi bikoitzean (herritarren %40tik gora, langabezian eta ehunka autonomo eta PYME lur jota) udal buruzagi horiek duten erantzukizuna ere salatu nahi du Mugimenduak.

Iturria: http://sevilla.tomalaplaza.net

EXPRESS ERREFORMA, ERREFERENDUMIK GABE

30 urtetan, Konstituzioaren lehen aldaketa hitzartu dute PSOE eta PP

ELPAÍS.ES Vera Gutiérrez Calvo / Ramón Muñoz Madril
23 AGO 2011 - 23:18 CET

Iturria: El País

15M mugimenduak bipartidismoaren aurkako borroka areagotu egin behar duela adierazi du CGT erakundeko idazkari nagusiak

Jacinto Ceacerok dioenez, bere sindikatuak ontzat hartzen du, amorratuen kolektiboari jarraipena emateaz gainera, horren eskaerak eta protestak heltzea ere.

15M mugimenduaren euskarri diren balioak eta CGT erakundeak defendatzen dituena —herritarren parte-hartzea, batzarra ardatz izatea, erabakiak hartu aurretik adostea, eta abar— elkargarri direla esan du Ceacerok.

Fuente: http://www.alicanteactualidad.es/noticias-el-secretario-general-del-cgt-senala-que-el-movimiento-15-m-de-madurar-su-lucha-contra-el-bipartidismo_9177.html

Iturria: http://sevilla.tomalaplaza.net/?s=%22hace+algunas+d%C3%A9cadas%22 *09/06/2011 // alicanteactualidad.es*

Ez jolastu gure osasunarekin, gure hezkuntzarekin, gure eskubideekin!

15M mugimenduak estatuko hainbat hiritan eginiko deialdia ezinago egokia gertatu zen, herriko Zaharren Egoitza ixtearen aurkako protesta gisa, Montequintoko Biltzarraren manifestazioarekin bat etorri zelako.

Zaharrentzat eta ezindu larrientzat egokituriko egoitza horren itxiera, biltzarkideek azaldu zuten modura, "184 pertsona zahar kale gorrian uztea" lursailen espekulazioaren ondorioz alde egin beharko zutelako. Ongizatearen estatuaren atzerakadaren adibide paradigmatikoa da hori. **Zerbitzu publikoetara bideratutako baliabideen murrizketak zerbitzu horiek ezin mantentzea dakar.** Eraginak, Katalunian edo Madrilen oraintxe ikusten ari den bezala, (leku horietan ikasleen gurasoak eta irakasleak egunotan hezkuntza publikoaren alde manifestatzen ari dira) ezin argiagoak dira: sektore publikoko profesionalen murrizketa, lanpostuen galera, (horren ondorioz) zerbitzu horien kalitatea apaltzea eta, azkenean, gauza publikoak pixkanaka desagertu eta, ondorioz, pribatuak ugaltzea.

2011ko irailak 21

Jarduerak

Nolako lotura dago albisteen eta zuk irakurri dituzun testigantzen artean?

9. Albisteak irakurri eta testigantzekin lotuta, atera ondorioak eta bildu hauek hurrengo taulan. Bila itzazu gaur egun bizi dugun herritarren mobilizazioaren kausak:

Bidegabekerien aurkako herritarren mobilizazioaren kausak: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Historiako suminduak

Mugimendu sozial bat izaera kolektiboko fenomenoa da eta bereizgarri hauek ditu: gizaki multzo handi batek, elkartasunaren printzipioan oinarriturik eta denen interesak baturik, botere-egituretan aldaketak eragiteko egintzak antolatzen ditu. Mugimendu sozialaren kontzeptuak aro garaikidera garamatzak arren, antzeko fenomenoak beste garai batzuetan ere hauteman ditzakegu.

Hona adibide pare bat: **Esklaboen matxinadak**. Espartako: Erromako esklabo horrek K.a. 73. urtean zuzendu zuen Erromako Errepublikaren kontrako matxinadarik garrantzizkoena, Italiako hegoalde osoan hedatu zena. Helburu guzti-guztiak lortu ez zituen arren, matxinada hark eta beste faktore batzuek, epe luzera, esklabutza-ereduaren gailentasunari amaiera eman zioten.

Revoltes Remences: laborarien matxinada horiek XV. mendean Aragoiko Erresuma osoan zabaldu ziren; sustraiak, berriz, Europa Feudaleko jopuen baldintza sozialetan dautza. Prozesuaren emaitzaz, gaingiroki, "erabilera gaiztoak" (jauntxo feudalen gehiegikeriak) indargabetu ziren eta nekazari batzuek (ez denek) lurren errentamendu-erregimen berri bati heldu zioten.

Jarduerak

10. Kokatu ardatz kronologikoan ondoko herritarren mugimenduak:

Frantziako Iraultza (1789)

Sufragioaren aldeko manifestazioak. Seneca Falls-en aldarrikapena (1848)

Pariseko komuna (1871)

"Herrien udaberria" Iraultzak 1848

"Canadiense"ren greba (Bartzelona) (1919)

Ghandi. Gatzaren Martxa (1930) (India).

Autobusen aurkako boikota. Martin Luther King (1955) (EE.UU.)

Vietnamgo gerraren aurkako manifestazioak (1964) (EE.UU.)

Krabelinen Iraultza 1974 (Portugal)

Maiatzaren Plazako Amak (1977) (Argentina)

"Nazioen Udazkena "---Berlingo Harresiaren eraispena (1989)

"Gerrari ez " (2003)

Jarduerak

11. Zabaldu horietakoren baten inguruko informazioa, ondoko eskemari jarraiki:

- Kokapena
- Kronologia
- Gatazkaren laburpena
- Protagonistak
- Errebindikazioak
- Lorpenak

Partekatu hau zure ikaskide denekin.

12. Egin berri dugun ibilbide historiko laburrak gauza batzuk egiaztatzeko aukera ematen digu; adibidez, bidegabekerien aurrean, gizarte osoa edo haren parte bat mobilizatzen dela, maiz berebiziko aldaketak erdietsiz. Une hauetan mobilizatzen ari den norbait (pertsona, erakundea, etab.) ezagutzen al duzu? Nolako jarduerak burutzen ari dira horiek?

Jarduerak

13. Irakurri testu hau eta, ondoren, erantzun galderei:

DEMOCRACIA REAL YA ERAKUNDEAREN AGIRIA

"Herritar xume normalak gara, zu bezalakoak: goizean jaiki eta ikastera, lanera edo lana bilatzera doan jendea; senide eta adiskideak dituena; egunero lanari lotuta dabilen jendea, bizitzeko eta gure ingurukoei etorkizun hobea emateko asmoz.
Batzuek geure burua aurrerazaleago ikusten dugu, beste batzuek, kontserbadoreago; batzuek fededun, besteak ez; batzuek ideologia sustraitu eta mamitua dugu, beste batzuek apolitikotzat jotzen dugu geure burua... Baina inguruko panorama politiko, ekonomiko eta sozialak denok kezkatzen eta amorratzen; bai politikoen, enpresarioen, bankarien... ustelkeriagatik, bai herritar xehearen babesgabeagatik.
Egoera horrek denok kaltetzen gaitu egunero-egunero. Denok elkartuta, ordea, egoera aldatu egin dezakegu. Badugu garaia zutitu eta martxan jartzeko, denon artean gizarte hobea eraikitzeko. Horregatik diogu hurrengo hau, sendotasunez:
Gizarte aurreratuaren lehentasunak hauek izan behar dira: berdintasuna, aurrerakuntza, elkartasuna, kulturarako irispide askea, iraunkortasun ekologikoa eta gizakien garapen, ongizate eta zoriontasuna.
Gizarte horietan oinarrizko eskubide batzuk bermatuak beharko lirateke: etxebizitza, lana, kultura, osasuna, hezkuntza, parte hartze politikoa, norberaren garapen askea eta, bizimodua osasuntsu eta zoriontsu izateko beharrezkoak diren ondasunak kontsumitzeko eskubidea.
Gure ekonomi eta gobernamendu sistemaren egungo funtzionamenduak lehentasun horiek bermatzen ez dituenez, gizateriaren aurrerabidean oztopo da.
Demokrazia herriarengandik sortua denez, gobernuak herriarena izan behar du. Estatu honetan, ordea, politiko gehienek aditu ere ez gaituzte egiten, beraien eginkizuna gure ahotsa erakundeetara helaraztea bada ere: horrela jokatuz erraztuko lukete herritarraren parte-hartze politikoa, gizarteko kide gehien-gehienen mesedetan, gure lepotik bere burua aberastu eta dirua pilatu ordez, botere sozioekonomiko erraldoien aginduak bakarrik bete ordez, PPPSOE sigla mugiezinak buru dituen alderdi-diktadura horren bitartez, botereari estu heldu ordez.
Gutxi batzuek boterea pilatzeko duten grinak desberdintasuna, ernegazioa eta bidegabekeria sortarazten ditu eta horrek bortizkeriara garamatza, baina bortizkeria ezetsi egiten dugu.
Indarrean dagoen ekonomi eredu zaharkitu eta antinaturalak gizarte-makineria geldiarazten du, bere burua erretzen duen espiral bat eratuz: gutxi batzuk ikaragarri aberasten diren bitartean, gainerako guztiak pobrezian amiltzen dira. Horrela, gizartea kolapsatu arte.
Sistema horren asmo eta xedea dirua pilatzea da, gizartearen eraginkortasun eta ongizateaz gainetik lehenetsita: jokabide horren ondorioz, baliabideak alferrik galtzen, planeta suntsitzen, langabezia ugaltzen eta kontsumitzaile betegabe eta zorigaiztokoak sortarazten dira.
Gure premien berririk ere ez duen gutxiengo bat aberasteko antolatu den makinaren piezatxo anonimoak gara herritarrak. Ezdeusak omen gara, baina gu gabe horrelakorik ez litzateke existituko, mundua guk mugiarazten dugulako.
Gizarte garen aldetik, gehiengoaren mesedetakoa behin ere izan eta izango ez den balizko errentagarritasun ekonomiko horren eskuetan gure etorkizuna ez uzten ikasten badugu, denok pairatzen ditugun gehiegikeriak eta gabeziak ezabatuko ditugu.
Ezinbestekoa da **iraultza etikoa** egitea: dirua **gizakiaren gainetik** ipini dugu baina, horren ordez, gure zerbitzura jarri behar dugu. Gizakiak garelako, ez merkatuko produktuak. Ez naiz bakarrik erosten dudana, zergatik erosten dudan eta nori erosten diodan.

Horregatik guztiagatik haserre nago, suminduta.
Errealitatea alda dezakegula uste dut.
Lagundu dezakedala uste dut.
Denok, elkarturik, aldatuko dugu.
Zatoz gurekin. Bete zure eskubidea."

Iturria: http://www.democraciarealya.es/manifiesto-comun/agiria-euskera/

Jarduerak

Ezagutzen al zenuen? Ba al dakizu nork idatzi duen? Hori zuk edo zure ikaskideak egingo zenuketen?

Iraganeko mugimendu sozialak ikertu dituzuen modu berean, egin ikerlana orain gure gizarteaz eta bildu informazioa aurreko ekimen horretaz (nork osatzen duen, nola dauden antolatuak, non topatuko ditugun...).

Bide islandiarra

Jarduerak

14. Irakurri testu hau eta, ondoren, erantzun galderei:

Eskandinaviar itsasertzaren eta Groenlandiaren artean, erdibidean dago Islandia. 2008 urtearen amaieran mundua astindu zuen krisi ekonomiko larriaren aurrean, 300.000 biztanle ozta-ozta dituen herrialde horrek berdingabeko prozesu soziopolitikoa protagonizatu du.

Islandiarra, historikoki, arrantzatik bizi izan da eta, egun ere, jarduera horrek herrialdearen aberastasunen %40 ekartzen du. Energia hidroelektriko eta geotermiko ugari daukan arren, Islandiako ekonomia ez zen agertzen Europako puntakoen artean; Bigarren Mundu Gerraren ostean, aldiz, kokapen geoestrategikoari eta industri garapen erraldoiari esker, eskandinaviar lagunek zuten ongizate mailara iritsi zen. Bertako populazioa urri-urria zenez (Donostialdearen antzekoa), beharrezko gizarte zerbitzuak emateko arazo larririk ez zuen bertako Gobernuak.

Joan den mendeko azken hamarkadaren erdialdean, ostera, Europar Espazio Ekonomikoan sartu zuten. Jarduera ekonomikoa biderkatu egin zen eta Irlandako Gobernuak banku pribatuen sorrera erraztu zuen. Hauek, pixkanaka, burtsan inbertitzen eta kontrolpean zituzten enpresen akzioekin espekulatzen hasi ziren. Islandiako Gobernuak eta bankuek helarazten zuten imajina biziki benezko edo fidagarria zenez, milaka atzerritarrek (britainiarrak eta holandarrak, batik bat) banku horietan inbertitzea erabaki zuten.

Errealitatea zeharo bestelakoa zen, ordea: Islandiako bankuak hamar urte lehenago hasiak ziren enpresak erosten, beren posibilitateen gainetik (seguruenik, itzuli ezingo zituzketen kreditu asko-asko pertsona eta enpresei emanez). Burbuila lehertu zen 2008 urtearen amaieran, islandiar hiru banku nagusiek porrot eginikoan. Gobernuak, erakunde horien jarduera hamar urtez laudorioztatu bazuen ere, bankuak nazionalizatu beste irtenbiderik ez zuen izan; islandiarrei zerga gehien-gehienak altxatuta, gastua murrizteko eta dirua (3.500 milioi euro) atzerriko inbertsiogileei itzultzeko konpromisoa hartuta, Nazioarteko Moneta Funtsari kreditua eskatu zion.

Ordura arte Islandian horrelakorik ezagun ez zen arren, protestaka hasi ziren herritarrak orduan eta, ondorioz, hauteskundeak aurreratu egin ziren. Hortik ateratako gobernuak, egindako zorra itzultzeko plan bat proposatu zuen baina protestak erabat zabaldu ziren eta proposamen hura berresteko (edo ez), erreferenduma egin zezan exijitu zitzaion gobernuari. 2010eko urtarrilean herriaren presioak gobernuburu Ólafur Rgnar Grímsson-i plebiszitua eginarazi zion. Urte hartako martxoan islandiarren %93k EZETZA eman zioten Gobernuak proposatutakoari, hau da, zorra (bankariek eta gobernariek ordaindu ordez) herriak itzuli behar izatearen aurkako harrabots ezkuta ezina.

Kontua, ordea, ez zen hor amaitu. Nazioarteko Moneta Funtsak Gobernuari presioa eragin zion, erabakitakoa berriro azter zezan baina organo horrek, herri gehiengoaren nahiak interpretatuz, kontrakoa deliberatu zuen bigarren horretan. Orain urtebete hasita, bankari, goi-exekutibo eta politikariak atxilotu eta epaitu dituzte Islandian, krisiaren egiazko erantzuleak direla leporatuta. Aldi berean, etorkizunean beste horrenbeste gertatzea galaraziko duten lege berriak sortzeko xedez, Konstituzioaren erreformari ekin zaio. Aldaketa hori egiteko inongo alderdi politikoren militante ez diren boluntarioak bilatu dituzte: hauei, adinez heldu izatea eta hogeita hamar lagunen sostengua edukitzea baizik ez zaie eskatzen. Aurkeztu ziren 522 boluntarioetatik 25 hautatuak izan ziren: hauek, islandiar guztiek Interneten bidez egin ditzaketen proposamen eta iruzkin guztiak aintzat hartzera behartuak daude [http://stjornlagarad.is/english/]. Prestakuntzako bilera guztiak, gainera, Estatuko telebistak zuzenean eman ditu.

Proposamenen prestaketan biztanleria osoaren %35ek bakarrik esku hartu duen arren (interes ekonomiko jakinekin loturiko hedabide pribatu batzuek eraginiko boikotagatik, hein handi batean), Islandiako gizarte mugimendu gehienek prozesuaren garrantzia azpimarratu dute. Emakume abokatu gazte baten eta gizaseme idazle baten iritziz, "Orain ezin esan diezagukete konstituzio bat egitea gauza zinez konplexua dela [...], askoz ere jende gehiago dago orain herri boterearekin inplikatua eta jende horrek badu zeresanik."

Islandiarrak orain Parlamentuaren erantzunaren zain daude; konstituzio-testu berria onesteko eskumena, izan ere, Legebiltzarrak du. Herritar askok galde egiten dute oraingoan organo hori ez onesten ausartuko den.

Iturriak:

- http://www.attac.es/la-revolucion-silenciada/
- http://www.rebelion.org/noticia.php?id=109032
- http://taringa.eu/le-monde-diplomatique-un-laboratorio-liberal-arrasado-por-la-crisis-cuando-el-pueblo-islandes-vota-c
- http://www.setmanaridirecta.info/ (número 244, octubre de 2011)

Alderatu itzazu Islandiako egoera eta Espainiakoa eta bi herrialdeetan planteatzen diren aldaketa-proposamenak. Egoerak antzekoak direla uste duzu? Argudiatu erantzuna

Islandiak erdietsi dituen aldaketak ikusirik, 15M Mugimenduak planteatzen dituen eskakizunak bete daitezkeela uste duzu?

Jarduerak

15. Irakurri ondoko testua. Konparatu Islandian erdietsi diren lorpenak eta Espainian, bost hilabeteko mobilizazioen ondoren, lortutakoa.

15M mugimendua martxan hasi zenetik bost hilabete igarota, hona egin beharreko galdera: Zein dira lorpenak? Lortu al da ezer? Erantzuten ez da samurra. Galderak hamaika erantzun eta milaka ñabardura ditu.

Hasteko, 15M mugimenduak sekulako lan pedagogikoa egin duela onartu behar dugu. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Ekonomiako Katedradun Arcadi Oliveres jaunaren iritziz, hilabete hauetan estatu osoan egin diren biltzar ugari-ugariek jende askori aukera eman diote egungo sistema politiko eta ekonomikoaren funtzionamenduaren oinarriak ulertzeko, funtsezko erreklamazioak zein izan behar diren zehazteko. Hastapenean plazak eta manifestazioak betetzen zituzten oinarrizko lemen ordez, sistema politiko eta ekonomikoaren aldaketa eragiteko erreklamazioak egiten dira orain (hauteskunde legea aldatzea, krisiaren ardura bankuei bizkarreratzea, gardentasuna areagotzea, etc.). Kontzientzia hartzeko ahalegin horrek, bere aldetik, batzar edo biltzarretan jarduten ikasteko balio izan du: plazak agora bilakatu ziren berehala, hots, toki horiek, parte hartzeko ez ezik, gizabanakoak eta gizataldeak beren erantzukizunak onartzeko ere balio izan dute.

Egintza zehatzez ari garela, oihartzunik zabalenetako bat etxebizitza utzaraztearen aurkako mugimendua izan da: krisialdi ekonomiko honek argi erakutsi du Espainiako hipoteka-sistemak mundu osoan ia ez zuela parekorik, gehiegikeriak aplikatzean. Alor honetan, beraz, bi lorpen erdietsi dira: batetik, etxebizitzen utzaraztea geldiarazteko mobilizazioak antolatu dituzte biltzar asko-askok; horri esker, Poliziak familia osoa etxetik ateratzea galarazi da, kasu askotan (ez denetan). Bestetik, 15M mugimendua, lehenagotik martxan ziharduten kolektiboekin batera (HKP: Hipotekek Kaltetutakoen Plataforma) lortzen ari dira buruzagien agenda politikoan bestelako neurriak agertzea, hala nola etxebizitza ordaintzat eman edo hartzea: horri esker, ohiko etxebizitzaren hipoteka ordaintzerik ez dutenek hartzekodunari etxea emanik zorra erabat kitatu ahal izango lukete. Neurri hau egun alderdi politikoren baten programetan agertzen bada ere, HKP plataformaren asmoa hori Herri-Ekimen Aske baten bidez tramitatzea da; horretarako biltzen ari den milioi sinadura hori Espainiako Parlamentuan aurkeztuko du, alderdi politikoetatik aparte.

Kale eta plazetan oihartzun ozenena izan zuten eskakizunen artean, politika zein finantza alorretako gardentasunari dagokiona da. Egiteko bidea oraino luzea bada ere (kutxa eta bankuei dagokienez, batik bat), Espainiako Gobernuak azkenean Gardentasunaren Legea arinago tramitatzeko beharra nozitu du, herritarrari politikarien soldata, ondare eta aurrekontuen gaineko informazio zabalagoa izan dezan. Gardentasun-irudi hori indartzeko, gainera, orain arte horrelakorik egin gabe zeuden erkidegoetako parlamentu eta udal batzuek kargu politikoen soldatak (baita, kasuren batean, ondarea) argitara eman dituzte.

Argibideak, argibiderik bada, 15M mugimendua arrakasta lortzen ari dela frogatzeko. Dena ez da amorratuen garaipen, ordea: sektore publikoan (osasungintza, hezkuntza, zerbitzu sozialak) eginiko murrizketak, Konstituzio espainiarraren erreforma "express" hori, aurrezki kutxen erreskateak, herri-partaidetzako espazioen zurruntasuna... argi eta garbi erakusten dute 15M mugimenduari kaletik alde egin aurretik bide luzea egin beharko duela.

Iturriak:

- http://www.publico.es/espana/391468/el-15-m-deja-huella-en-solo-tres-mes...
- http://www.tv3.cat/3alacarta/#/videos/3752070
- http://afectadosporlahipoteca.wordpress.com/campana-dacion-en-pago/

Jarduerak

16. Bilatu Interneten 2010eko udazkenean Egipton izaniko matxinadari buruzko informazioa; baita Islandian gertaturiko aldaketei buruzkoa. Zein herrialdetakoa da informazio ugariena? Zeri egozten diozu alde hori?

17. Begiratu marrazki honi: orain arte jorratu duguna aintzat hartuta, zer iradokitzen dizu?

Iturria: http://blogs.publico.es/manel/3053/revoluciones/

18. Egoera aztertuta, gauzak aldatzea posible dela egiaztaturik, antolatu zaitezte bospasei laguneko taldetan: pentsatu zer egin dezakezuen zeuek aldaketa ekartzen laguntzeko. Egintzak indibidualak edota kolektiboak izan daitezke. Adierazi zer egin behar duzuen, nola egingo duzuen, eta aurkeztu hori gelako gainerako ikaskideei.

    Erabaki ezazue denon artean, lantaldeek proposaturiko egintzetatik, zein jarriko dituzuen martxan; planifikatu egintza horiek noiz eta nola gauzatuko dituzuen.